

Lanbide bitxiak

–Gaur, lanbide bitxiak ezagutuko ditugu. Nik lanbidea esango dizut eta zuk langileak nolakoak diren esango didazu, ados?

–Ados. Bota lehenengoa!

–Ohe-probatzaileak.

–Bada, lotiak eta alferrak, seguru.

–Bandera-astintzaileak.

–Kar-kar, zer bitxia! Horiek indartsuak eta pazientzia handikoak izango dira!

–Alpinistak parke eolikoan!

–Ausartak eta kirolzaleak.

–Bai, ados nago zurekin! Begira hau: izozki- eta litxarrerria-probatzailea.

–Horiek gozozaleak eta tripontziak. Lanbide ederra!

–Bai, ederra! Bakarriketariak.

–Hori ez da oso bitxia... Horiek lotsagabeak eta berritsuak, jakina!

–Eta azkena. Nolakoak izango dira hildakoen makillatzaileak?

–Bada, horiek isilak eta bakartiak.

–Bai, horrelakoak izango dira, bai!